



**237/2017 ALKATETZA DEKRETUA**  
2017ko maiatzaren 31ekoa

**IORITZ IMAZ BAZTARRIKA** jaunak, Idiazabalgo Alkate Udalburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera,

**IKUSIRIK**

Idiazabalgo Udalak, 2015-2019 Kultura, Kirola eta Euskara Planaren bitartez euskararen aldeko hizkuntza politika sustatzen du., euskararen biziberritze eta normalizazioaren helburuarekin, bere esparru guztietan eta, aldi berean euren eguneroko bizitza euskaraz egin nahi duten bizilagunei aukera hau bermatze aldera Xedea da hiztun berriak lortzea eta euskararen erabileraren esparruak zabaltzea eta sakontzea.

Diru laguntza horren oinarriak onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurrak, 2017ko martxoaren 23an ezohiko bileran.

Deialdi hau egokitzen zaio Diru laguntzen Plan Estrategikoari-Kultur Departamenduaren 05/2017 lerroa-urtarrilaren 27ko 17/2017 Alkatetza Dekretu bidez onartua.

**AINTZAT HARTURIK**

**Eskumena.** Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorraren 10. artikulua honakoa dio:

**“Deialdia onartuko du Alkate-udalburuak** eta han bertan sartuko dira diru laguntzak emateko oinarriak eta iragarri egingo da. Eskakerak aurkezteko epea eta modua deialdian zehaztuko dira”.

**Araudia**

-Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea

- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskal Tokiko Erakunde buruzko Legea

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

-Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorra. (GAO::2017/04/25ean argitaratua, 78. zk.ia).

Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen urtarrilaren 27ko 17/2017 Alkatetza Dekretua

-Diru laguntzaren oinarriak (Osoko Bilkurrak, 2017ko martxoaren 23an ezohiko bileran onartutakoak).

**Publizitatea**

a) Diru laguntzak eman baino lehen, haiek erregulatu dituzten oinarriak onartu behar direla, aipatu legeak ezarritako terminoetan, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestetik, lege bereko 17.2 artikulua hauxe dio: “... diru laguntzak erregulatu dituzten oinarriak onartu behar direla aurrekontua exekutatzeko oinarrien markoan, Diru laguntzen Ordenantza Orokor baten bidez edo diru laguntza modalitate bakoitzaren ordenantzaren bidez”.

b) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra.18 atalak zera dio: “*La publicidad de las subvenciones concedidas por Entidades Locales de menos de 50.000 habitantes podrá realizarse en el tablón de anuncios. Además, cuando se trate de Entidades Locales de más de 5.000 habitantes, en el Diario Oficial correspondiente se*



**Idiazabalgo Udala**  
( GIPUZKOA )



*publicará un extracto de la resolución por la que se ordena la publicación, indicando los lugares donde se encuentra expuesto su contenido íntegro".*

Hau guztia kontuan harturik,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehengoa.** Euskara ikasteko diru laguntzak emateko 2017ko deialdia onartzea (1. eranskina)

**Bigarrena.** 5.000€ko gastua onartzea 1.481.02.335.00.2017 aurrekontu aplikazioari egotzia.

**Hirugarrena.** Deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartzea

**Laugarrena.** Deialdia Diru laguntzen Datu-Base Nazionalari igortzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikulua xedatutakoari jarraituz.

**Bosgarrena.** Kontabilitate unitateari jakinaraztea.

1. eranskina

| IDIAZABALGO UDALA.  | AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL   |
|---|---|
| <i>2017rako Diru laguntzen deialdia euskara ikasteko</i>  | <i>Convocatoria de subvenciones de 2017 para el aprendizaje del euskera.</i>  |
| Idiazabalgo Udalak, 2015-2019 Kultura, Kirola eta Euskara Planaren bitartez euskararen aldeko hizkuntza politika sustatzen du., euskararen biziberritze eta normalizazioaren helburuarekin, bere esparru guztietan eta, aldi berean euren eguneroko bizitza euskaraz egin nahi duten bizilagunei aukera hau bermatze aldera | El Plan 2015-2019 de Cultura., Deporte y Euskara del Ayuntamiento de Idiazabal impulsa una política lingüística a favor del euskera., con objeto de dinamizar e impulsar la recuperación y la normalización del euskera en todos los ámbitos y, al mismo tiempo, posibilitar la opción de los/as vecinos/as que desean realizar su vida cotidiana en euskera. |
| Xedea da hiztun berriak lortzea eta euskararen erabileraren esparruak zabaltzea eta sakontzea.  | El objetivo es conseguir nuevos hablantes y expandir y potenciar los ámbitos de uso del euskera   |
| Diru laguntza horren oinarriak onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurrak, 2017ko martxoaren 23an ezohiko bileran.   | Las bases reguladoras de la subvención fueron aprobadas por el Ayuntamiento- Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el 23 de marzo de 2017.  |
| Deialdi hau egokitzen zaio Diru laguntzen Plan Estrategikoari-Kultur Departamenduaren 05/2017 lerroa-urtarilaren 27ko 17/2017 Alkatetza Dekretu bidez onartua.  | La convocatoria se ajusta a lo dispuesto en el Plan Estratégico de Subvenciones- línea 05/2017 del Departamento de Cultura)- aprobado por Decreto de Alcaldía 17/2017, de 27 de enero.  |
| Alkate-Udalburuak, 2017ko ekainaren xxko Dekretu bidez, ebatzi du euskara ikasteko diru laguntzen deialdia 2017rako; horren edukia honako   | El Alcalde-Presidente, mediante Decreto de Alcaldía 237/2017, de 31 de mayo, ha resuelto aprobar la convocatoria de 2017 de subvenciones,   |



|  |  |
|--|--|
| <p>hau da:</p> <p style="text-align: center;"><b>DEIALDIAREN ARAUAK.</b></p> <p><b>1. Xedea eta zenbatekoa</b><br/>Deialdi honen xedea da euskara ikasteko ikastaroen gastuak ordaintzeko diru laguntzak norgehiagoka ematea arautzea, baldin eta ikastaro horiek ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta ekimen hauek diru-laguntza deialdi honen 2016ko uztailaren 1etik 2017ko ekainaren 30era bitartean gauzatzen badira.</p> <p>Aurreikusitako diru-laguntzaren zenbatekoa 5.000€koa da, 1.481.02.335.00.2017 aurrekontu aplikazioari egotzia.</p> <p>Aurreikusten den epean aurkeztutako eskariak kontuan hartuko dira erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, egon litezkeen kreditu gehitzeak ere aintzat harturik.</p> <p>Diru laguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako gehieneko muga horretara iristeko biderik uzten, diru laguntza bakoitza proportzioan murriztuko da, ikastaroaren kostu eta balorazioan lortutako puntuazioa kontuan hartuta.</p> <p><b>2. Onuradunak.</b><br/>1.- Diru laguntzak eskatu ahalko dituzte honako baldintza hauek betetzen dituztenek:<br/>--Idiazabalgo udalerrian erroldatutako norbanakoak.<br/>--HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) onetsitako zentroetako batek emandako ikastaroren batean matrikulatuta egotea.<br/>--16 urtetik gora izatea, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako.</p> <p><b>3. Lagundu daitezkeen ikastaroak.</b><br/>Diruz lagundu ahal izango dira:<br/><br/>—HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak) homologatutako euskaltegiek eta zentroek</p> | <p>cuyo contenido se expresa a continuación.</p> <p style="text-align: center;"><b>NORMAS DE LAS CONVOCATORIA</b></p> <p><b>1. Objeto y dotación</b><br/>El objeto de la presente convocatoria es regular la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva para abonar los gastos de los cursos de aprendizaje de euskera siempre que dichos cursos reúnan los requisitos establecidos y hayan sido realizados en el periodo de tiempo comprendido entre el 1 de julio de 2016 y el 30 de junio de 2017.</p> <p>La dotación económica prevista es de 5.000 euros, imputables a la aplicación presupuestaria: 1.481.02.335.00.2017</p> <p>Las solicitudes presentadas en el plazo establecido se atenderán hasta agotar el presupuesto disponible, incluidas, en su caso, las incorporaciones de crédito.</p> <p>En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dicho límite, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente en cada caso, en función del coste del curso y de la puntuación obtenida en la valoración.</p> <p><b>2. Beneficiarios/as</b><br/>Podrán solicitar las subvenciones los que cumplan los siguientes requisitos:<br/>-Personas físicas empadronadas en el municipio de Idiazabal.<br/>-Hallarse matriculado en algún curso impartido por algún centro reconocido por HABE (Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Personas Adultas).<br/>-Tener edad superior a 16 años en la fecha en que finalice el curso.</p> <p><b>3. Cursos subvencionables</b><br/>Podrán ser subvencionados:<br/><br/>— Los cursos de euskaldunización y alfabetización, tanto presenciales, de autoaprendizaje o mixtos, impartidos desde el 1 de julio del año anterior y el 30 de junio del año de la correspondiente</p> |
|--|--|



|   |   |
|---|---|
| <p>emandako euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak, deialdiari dagokion urteko uztailak 1etik ekainaren 30era bitartean antolatutakoak.</p>  | <p>convocatoria por euslkaltegis o por centros reconocidos por HABE (Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Personas Adultas).</p>  |
| <p><b>4. Eskakerak aurkeztea.</b></p>   | <p><b>4. Presentación de solicitudes</b></p>  |
| <p>1. Eskaera aurkeztu ahal da erregistro elektronikoa, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoetan, posta bulegoetan erregelamenduz ezartzen den moduan,edo indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.</p>   | <p>1. La solicitud podrá presentarse en el registro electrónico, en la oficina de asistencia en materia de registros, en las oficinas de correos o en cualquier otro que establezcan las disposiciones vigentes..</p>   |
| <p>2. Erregistro elektronikoa aurkeztuz gero, eskatzaileak erabili beharko ditu sinadura elektronikoa edo pasahitza. Eskaera eta harekin joan behar duen dokumentazioa internet bidez aurkeztu behar da Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa (<a href="https://www.idiazabal.eus">https://www.idiazabal.eus</a>) dagoen diru laguntzen atarian sartuta.</p>  | <p>2. En caso de presentarse en el registro electrónico, el solicitante deberá utilizar la firma electrónica o la clave operativa. La presentación de la solicitud y la documentación complementaria vía Internet se realizará a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Idiazabal (<a href="https://idiazabal.eus">https://idiazabal.eus</a>) y en la página web en el apartado de Cultura.</p>   |
| <p>3. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa (<a href="https://www.idiazabal.eus">https://www.idiazabal.eus</a>) eta Kultura, Kirol eta Euskara departamenduaren web orrian.</p>   | <p>3. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento de Idiazabal (<a href="https://idiazabal.eus">https://idiazabal.eus</a>) y en la página web en el apartado de Cultura.</p>   |
| <p>4. Eskaerak aurkezteko epea (bkatuko da 2017ko uztailaren 31n.</p>   | <p>4. El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 31 de julio de 2017.</p>  |
| <p><b>5. Zer agiri aurkeztu behar den. 2017an</b><br/>-Diru laguntza eskatzeko orria, eredu normalizatuari jarraituz behar bezala beteta.<br/>-NAN fotokopia<br/>-HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) onetsitako zentroetako batek emandako ikastaroen izen-emate agiria .<br/>-Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.<br/>- Asistentzia eta aprobetxamendu egiaztagiria.<br/>-Ikastaroak sortutako gastuak ordaindu izanaren frogagiriak.</p> | <p><b>5. Documentación a presentar en 2017</b><br/>--Instancia de solicitud de subvención debidamente cumplimentada de acuerdo con el modelo normalizado.<br/>-Fotocopia DNI<br/>- Certificado de haber estado matriculado en algun curso impartido por algun centro reconocido por HABE (Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Personas Adultas).<br/>--Certificado de titularidad de cuenta corriente<br/>- Certificado de asistencia (85%) y de aprovechamiento del curso<br/>-Medios de prueba de abono de los gastos del curso.</p> |
| <p><b>6. Diru laguntzak banatzeko baremo aplikagarriak</b></p>  | <p><b>6. Baremos aplicables al reparto de subvenciones</b></p>  |
| <p>1. Balorazioa egiteko aplikatuko diren irizpideak honako hauek dira:<br/>— Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaro presentzialak (Barnetegiak barne) %100era arte.<br/>— Auto-ikaskuntza. %60ra arte</p>   | <p>1. Los criterios aplicables para efectuar la valoración son los siguientes:<br/>- Los cursos presenciales de euskaldunización y alfabetización (incluido Barnetegi): hasta el 100%<br/>-Los cursos de autoaprendizaje: hasta el 60%</p>  |



# Idiazabalgo Udala

( GIPUZKOA )



—B2tik edo baliokidetik aurrerakoak lortzeko ikastaroak. %60ra arte.

2. Ezingo da izan landu beharreko ikastaro edo jardueraren kostua baino handiagoa.

## 7. Batzorde Ebaluatzailea

Batzorde Ebaluatzailearen burua izango da Alkate-Udalburua edo horren ordezkoa.

Kideak izango dira udal talde bakoitzeko ordezkari bat (eta, bere kasuan, zinegotzi ez atxikitua).

Idazkari jardungo du Kultur departamenduko teknikariak.

## 8. Diru laguntzaren ordainketa

Ordainketa egingo da 30 eguneko gehienezko epean, diru laguntza ematen den Ebazpenaren datatik aurrera eta ordainketa bakar batean.

-Los cursos para obtener un nivel superior al B2 o equivalente: hasta el 60%

2. El importe de las subvenciones no podrá, por sí sólo, ser superior al coste del curso o actividad.

## 7. La Comisión Evaluadora

La Comisión Evaluadora será presidida por el/la Alcalde-Presidente o persona en quien delegue

Los vocales serán un/a Concejala/a por cada grupo municipal (y, en su caso, Concejala/a no adscrito/a).

Actuará como secretario/a: el/la técnico/a del departamento de Cultura.

## 8.- Abono de la subvención

El pago se efectuará en plazo máximo de 30 días a contar desde la fecha de la Resolución de otorgamiento de la subvención y en un solo pago.

ALKATE UDALBURUAK  
Ioritz Imaz Baztanika

Nire aurrean,  
IDAZK KONTU HARTZAILAK  
Isabel Fuertes Matxin

